

PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OLABIDE IKASTOLA						2017-2018
ARLOA / GAIA	FISIKA ETA KIMIKA					DATA	2017-09-26
ETAPA - MAILA	1 DBH	2 DBH	3 DBH	4 DBH	X	1 BATX.	2 BATX.

1	HELBURUAK: GUTXIENGO GAITASUN MODUAN DEFINITUAK
	<p>1. Higidura deskribatzeko behar-beharrezkoak diren kontzeptuak eta magnitudeak (ibilbidea, erreferentzia-sistema, posizioa, distantzia eta abiadura) identifikatzea eta higidura deskribatzea, hizkuntza zientifiko egokia erabiliz (kalkuluak eta grafikoak).</p> <p>2. Higidura uniforme (lineala zein zirkularra) definitzea eta deskribatzea, ekuazio eta irudikapen grafikoak (posizio-denbora eta abiadura-denbora grafikoak) erabiliz eta interpretatuz.</p> <p>3. Higidura uniformeki azeleratua definitzea eta deskribatzea, ekuazio eta irudikapen grafikoak (posizio-denbora eta abiadura-denbora grafikoak) erabiliz eta interpretatuz.</p> <p>4. Egoera batean energia mekanikoa identifikatzea eta, energiaren ezaugarrietan oinarrituz, elementu zinematikoen eta energiaren kalkuluak egitea, ondorioak justifikatzeko.</p> <p>5. Indar motak, efektuak, neurketa eta beren izaera bektoriala aztertuz eta euskarri desberdinetan emandako informazio balioetsiz, indarrak identifikatu, indarren diagramaren bidez irudikatu eta indar- konposaketaren kasu sinpleak kalkulatu.</p> <p>6. Indarrak eta higiduraren arteko erlazioa aztertuz, dinamikaren printzipioak definitu eta eguneroko bizitzan gertatzen diren kasuak printzipio horien bidez azaldu eta kalkulu sinpleak burutu.</p> <p>7. Orekan dauden fluidoaren oinarrizko printzipioak definitu eta interpretatu, eguneroko bizitzan gertatzen diren kasu arruntei buruzko kalkulu sinpleak burutu.</p> <p>8. Elementu kimikoen egitura elektronikoa aztertuz, taula periodikoak ematen duen informazioa eta sailkapena ikertu eta azaldu.</p> <p>9. Elementu kimikoen ezaugarri bereizgarriak aztertuz eta ikertuz, konposatu kimikoak osatzen dituzten atomoen arteko lotura kimikoak nola eratzen diren arrazoitu eta konposatu kimikoen izenak eta formulak adierazi, arauak jarraituz, beti ere konposatuen egitura eta propietateak azaltzeko.</p> <p>10. Erreakzio kimikoen mekanismoak eredu atomiko- molekularren bitartez interpretatuz, betetzen dituzten lege kuantitatiboak aztertu, kalkulu kimikoak egiteko eta zientziaren garapenean teoriak duten balioa eta garrantzia balioesteko.</p> <p>11. Erreakzio kimikoetan eragina duten faktoreak bereizi eta nola eragiten duten ikertu, erreakzio kimikoak kontrolatzeko eta erabilera egokiaren garrantziaz jabetzeko.</p>

2 EDUKIEN DENBORALIZAZIOA					
ORD.	1. ebaluazioa	ORD.	2. ebaluazioa	ORD.	3. ebaluazioa
7	Higidura -Posizioa [SEP] -Desplazamendua [SEP] -Distantzia [SEP] -Abiadura (aldiunekoa/batez bestekoa) [SEP]	7	Indarrak - Definizioa [SEP] - Izaera bektoriala [SEP] - Hooken legea [SEP] - Indar motak [SEP] - Indarren konposizioa [SEP] - Indar erresultantearen kalkulua	6	Eredu atomikoak Elementu kimikoak Konfigurazio elektronikoa Taula periodikoa
7	Higidura uniforme [SEP] -Higidura uniformearen ekuazioa [SEP] -Higidura uniformearen adierazpen grafikoa [SEP] -Higidura zirkular uniforme [SEP]	7	Dinamikaren printzipioak: -Inertiaren printzipioa [SEP] -Marruskadura indarra [SEP] -Dinamikaren oinarritzko printzipioa [SEP] -Akzio-erreakzioaren printzipioa [SEP]	6	Lotura kimikoak Substantzien propietateak
7	Higidura uniformeki azeleratua [SEP] -Azelerazioa [SEP] -Higidura uniformeki azeleratuaren ekuazioa [SEP] -Higidura uniformeki azeleratuaren adierazpen grafikoa [SEP] -Gorputzen erorketa librea [SEP]	7	Higidura zirkularreko indarrak Gorbitazio Unibertsalaren legea [SEP] Energiaren transferentziak eta lana [SEP] -lana -potentzia [SEP]	7	Formulazio kimikoak: oxidoak, hidruoak, oxoazidoak, hidroxidoak, gatzak
7	Energia [SEP] -Energia mekanikoa: zinetikoa eta potentziala [SEP] -Energiaren kontserbazioaren printzipioa	7	Dentsitatea [SEP] Presioa [SEP] Pascalaren printzipioa [SEP] Arkimedesen printzipioa [SEP]	10	Ekuazio kimikoen doikuntza [SEP] Prousten proportzio konstanteen legea Erreakzio kimikoen masa unitateen arteko erlazioak Erreakzio kimikoen energia: exotermikoa eta endotermikoa Erreakzioetan eragiten duten faktoreak (abiadura, temperatura, ukipen-azalera)

3	METODOLOGIA
	Ebaluaketa bakoitzean unitate didaktiko bat lantzen dugu. Unitate bakoitza 3 fasetan banatzen delarik: Hasiera fasea, garapen fasea eta amaierako fasea. Hasiera fasean zer ikasiko dugun eta zertarako erabiltzen den tratatzen dugu, bizitza errealeko egoera bat planteatuz. Garapen fasean eduki-baliabideak eskuratzeko azalpen eta ariketak lantzen ditugu eta bukatzean hasieran planteaturiko egoerari aurre egiten diogu. Amaierako fasean antzeko egoera baten aurrean nola jokatu aztertuko dugu.

4	BALIABIDEAK
TESTU LIBURUA:	EDITORIALA:
FISIKA eta KIMIKA 4 (Bigarren Hezkuntza)	IKASELKAR

5	EBALUAZIO SISTEMA
	KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK
	Unitate didaktiko bakoitzean eduki-baliabideak neurtzeko azterketa bat egingo dugu. Unitatea bukatzean kompetentziak neurtzeko beste azterketa bat egingo dugu. Jarrerak %20ko eragina izango du ebaluazioaren azkenengo notan.
KALIFIKAZIOEN BALIO PORTZENTUALA	EDUKI-BALIABIDEAK % 30 KOMPETENTZIAK % 50 JARRERAK % 20

Unitate didaktiko bakoitzean, suspenditutako eduki-baliabideak ebaluaketaren bukaeran errekeratu ahalko dira azterketa baten bidez (errekerazioa).

Errekerazio azterketa hori ere suspenditzekotan, ekainean, kurtsoan zehar gairitu gabeko unitate didaktikoen eduki-baliabideen errekerazioa egingo da (nahikotasuna).

Nahikotasunean unitate didaktikoren bat suspenditzen bada, kurtsoa suspenditzen da eta ez-ohiko deialdian berreskuratu ahalko da.

Ez-ohiko deialdiko azterketa suspenditzen bada, kurtso horretan irakasgaia suspendituztat geldituko da.